

Eibarko Udalak Robotikan inguruko udaleku teknologikoa antolatu du zientzia eta teknologiaren mundu ikusgarrian murgiltzeko. Robotak erabiliaz diseinatzen, eraikitzen eta programatzen ikasiko dute Lego Mindstorms EV3 plataforma erabiliz, nerabeen inteligentzia, gaitasunak eta doaiak garatuz ondo pasatzen duten bitartean.

**Tramitatzailea:** Garapen ekonomikoa, enplegu eta berrikuntza Saila.

**Hartzaileak:** LH 5. Eta 6. mailakoentzat

**Ikastaroaren prezioa:**

**24€** ( Eibarren erroldatuak)

**40€** ( Eibartik kanpokoak)

**Ikastaroaren ordainketa:** Matrikula ordainketa bakar batean kobratuko da, erreziboa helbideratuta.

**Eskaera egiteko tokia:**

PEGORA, Herritarren Zerbitzurako Bulegoa.

**Nork emango du:** DOPLAY

**Non:** Juan San Martín Liburutegia. Portalea.

**Datak:** bi txanda

Azaroak 5,12 eta 19

Abenduak 3,10 eta 17

**Ordutegia:** 18:00etatik 20:00etara.

**Ikasle kopurua:** gutxienez 6 ikasle, eta gehienez 15 ikasle edo 16\* ikasle

**Ikastaroaren hizkuntza:** euskaraz.

**Eskaera egiteko epea:** urriaren 17tik 27ra.

## Aurkeztu beharreko agiriak:

“**IKASTAROAK: MATRIKULA ORRIA**” izeneko inprimakia behar bezala beteta (PEGORAn eta udal web orrian, [www.eibar.eus](http://www.eibar.eus) eskuragarri).

Aitaren, amaren edo tutorearen **NANaren** edo balio bereko dokumenturen baten kopia.

**NAN** dokumentuen alde biak A-4 neurriko alde bakar batean inprimatuko dira.

Tutoreen kasuan, tutoretza egiaztatzen duen dokumentazioa.

## Kudeaketa arauak:

Izena emateko bi aukera ezberdin daude:

1.- Bakarka: pertsona bakoitzak bere matrikula orria bete beharko du eta zozketarako zenbaki bat izango du. Zozketa beharrezkoa izanez gero bakarrik egingo da.

2.-Binaka: bi lagunek elkarrekin izena eman ahal dute. Bakoitzak bere matrikula egin behar du eta taldekidearen izena jarri. Aukera hau erabiltzerakoan bikotea zenbaki bakarrarekin sartuko da zozketan, era honetan biek lortuko dute plaza, edo biak geratuko dira kanpoan.

Izena eman duten pertsonen kopurua ez bada heltzen ikastaroa emateko ezarritako gutxieneko ikasle-kopurura, ez da ikastarorik egingo. Abisua udalaren web orrian emango da ([www.eibar.eus](http://www.eibar.eus)), **2016ko urriaren 28an**.

Izena eman duten pertsonen kopuruak ezarritako gutxieneko ikasle-kopurua gainditzen badu eta ezarritako gehiengo ikasle-kopurutik gorakoa ez bada, matrikula guztiak onartuko dira.

Matrikularako izena eman dutenen kopurua ezarritako gehiengo ikasle-kopurutik gorakoa bada, ikasleen aukeraketa zozketa bidez egingo da. **Zozketa Portalean egingo da**. Hona hemen zozketa-eguna eta ordua: **2016ko urriaren 31n 10:00etan**.

Zozketa era honetan egingo da:

Zozketa egin aurretik ikastaroan izena eman duten pertsona guztiak zerrenda bat egingo da alfabetoaren arabera ordenatuta; bakoitzari zenbaki bat emango zaio. Izen ematea binaka egiten dutenen kasuan, bietatik alfabetikoki aurreneko dagoen abizena sartuko da;

Bi zerrenda egongo dira, ordutegi edo txanda bakoitzeko bat.

Zaku baten sartuko dira zenbaki guztiak eta zerrenda bakoitzeko zenbaki bakar bat aterako da.

Aukeratuko diren pertsonak zenbaki horretatik hasita elkarren hurreneko ondoren datozenak izango dira, plaza guztiak bete arte (15) eta binaka izena eman dutenak kontuan izanda. \*Azkenengo plaza binaka izena emandakoa bada, ezarritako gehieneko ikasle-kopurua 16koa izango da.

Onartu diren pertsonen izenekin zerrenda bat egingo da. Zerrenda hori PEGORAn eta udalaren webgunean egongo da **urriaren 31n, 12:00etatik** aurrera. Zerrenda hori argitara ematen den unean sortzen da matrikularen zenbatekoa ordaintzeko obligazioa. Ikastaroa utzi edo ikastaroan baja ematen duen pertsonak ez du izango matrikularen zati proportzionala jasotzeko eskubiderik.

**Oharrak:** Talde batean izena emandakoen kopuruak ezarritako gutxieneko ikasle-kopurua gainditzen badu eta ezarritako gehieneko ikasle-kopurutik gorakoa ez bada eta beste taldeetan izena eman dutenen kopurua ezarritako gehieneko ikasle-kopurutik gorakoa bada, aurreneko taldea beste taldeko ikasleez osatu ahal izango da zozketak emandako emaitzari atxikituz eta ikastaroa jasoko duten ikasleen adin bereko taldeari lehentasuna emanez.

Aurreko edizioetan parte hartu zutenek ezin izango dute matrikula egin.

**Informazio gehiago:** 943 708 451